



**HAL**  
open science

## Hizkerak banatzeko ezaugarriez

Gotzon Aurrekoetxea

► **To cite this version:**

Gotzon Aurrekoetxea. Hizkerak banatzeko ezaugarriez. Anuario del Seminario de Filología Vasca "Julio de Urquijo", 1996, XXX-1, pp.127-144. artxibo-00071194

**HAL Id: artxibo-00071194**

**<https://artxiker.ccsd.cnrs.fr/artxibo-00071194>**

Submitted on 23 May 2006

**HAL** is a multi-disciplinary open access archive for the deposit and dissemination of scientific research documents, whether they are published or not. The documents may come from teaching and research institutions in France or abroad, or from public or private research centers.

L'archive ouverte pluridisciplinaire **HAL**, est destinée au dépôt et à la diffusion de documents scientifiques de niveau recherche, publiés ou non, émanant des établissements d'enseignement et de recherche français ou étrangers, des laboratoires publics ou privés.

Aurrekoetxea 1996a  
Argitaratua in: *ASJU*, XXX-1, 1996, 127-144

## HIZKERAK BANATZEKO EZAUGARRIEZ<sup>1</sup>

Gotzon Aurrekoetxea  
EHU-UPV  
1998-01-28

### Abstract

Geolinguistikaren ikuspuntutik hizkerak bereizteko eta elkarren artean konparatzeko, eta, ondorioz, hizkuntz distantziak neurtzeko metodologiaren puntu bat aztertzen da artikulu honetan: hizkuntz ezaugarrien hautaketa. Hizkuntz ezaugarriok bi multzo handitan bana daitezke: gramatika eta lexikoa. Artikuluan zehar gramatika ezaugarriak lantzen dira, lexikoa beste ikerketa baterako utziz. Gramatikari lotuz, ezaugarrien aukeraketarako hizkuntzaren arlo desberdinak jorratzen dira: fonologia, izen morfologia, aditz morfologia eta sintaxia. Arlo hauek bereiziz lantzea proposatzen da. Horregatik ezaugarrien zerrenda arloka lantzea proposatzen da. Horrela hizkuntz distantziak neurtzean gramatika arlo bakoitzean hizkeren arteko hizkuntz distantziak ezagutzeko aukera izango da eta ondoren, arlo guztiak bildurik, orokorki aztertzeko. Ezaugarrien zerrenda zehatza aurkeztu ondoan, hauen kopuruaz eta gramatika arlo desberdinen arteko orekaz gogoeta egiten du egileak, arlo desberdinek pisu bera behar ote duten edo arlo desberdinetan ezaugarri kopuru berbera erabili behar den itaunduz. Hizkuntz ezaugarriok izaera abstraktua dutenez, datuekin hornitzeko bidea eta prozedura ere aztergai hartzen da. Azkenik, lexikoa beste ikerketa baterako gaia den arren, garatzeko urrats desberdinak proposatzen dira.

HITZ GILTZAK: GEOLINGUISTIKA, HIZKEREN EZAUGARRIAK, HIZKEREN KONPARAKETA, HIZKUNTZ DISTANTZIAK

Ezaguna denez, euskal geolinguistikan hizkerak bereizteko ezaugarriak erabili zituen lehen dialektologoa L.L. Bonaparte izan da. Harrezkero, urte asko igaro diren arren, ezer

---

<sup>1</sup> Lan honek bide malkartsua ezagutu du argitarabidean 1995an ikusi zuen lehen idaztalditik gaur egunera arte. Orain, berreskuratuta, azken orduko eguneratze ukitu berriak jaso ditu.

gutxi aurreratu da alor honetan. Horrela mintzatu zen K. Mitxelena ere duela jada 20 urte baino gehiago<sup>2</sup>:

No se ha adelantado gran cosa en cuanto al perfeccionamiento de los criterios que permiten distinguir subgrupos dentro de grupos; cuando, aunque el campo no es de los mejor trabajados, todos siguen aceptando, con retoques mínimos, la clasificación de los dialectos vascos establecido por Bonaparte, mucho antes que Gilliéron, etc. y no precisamente con los mismos criterios que luego se han empleado en dialectología románica o germánica.

---

<sup>2</sup> K. MITXELENA, 1976, "La fragmentación dialectal: conocimientos y conjeturas", *REL* VI, 309-324. or. (aipamena 319. or.); eta orain 1985<sup>2</sup>, in *Lengua e historia*, Paraninfo, Madrid, 73-85. or.

Eta ez dut uste gai honetan asko aurreratu denik berba hauek idatzi zirenetik ere.

Azkenaldion, ostera, hizkerak banatzearen gaiak badirudi aktualitatea irabazi duela. Ikerketa aberatsak ari dira burutzen eta argitaratzen gure artean; izan dadin O. Ibarraren tesi-lana<sup>3</sup>, I. Caminorena<sup>4</sup> edota G. Aurrekoetxearena<sup>5</sup>; izan dadin I. Gaminderen ikerketa lanak<sup>6</sup> edota K. Zuazorenak<sup>7</sup>, adibide batzuk baino ez aipatzearren.

On da euskal dialektologiak aurrera begirako urratsak ematea. Halaber, L.L. Bonapartek ezarritako euskalkien mapa, hizkera konkretuen kokapenari buruzko ikerketa puntualak gainditu eta, kritikagune bihurtzea.

Alde horretatik poztu egin naiz K. Zuazoren “Euskalkiak sailkatzeko ezaugarriak” lana<sup>8</sup> agertzearekin. Nire tesian jorratutako alorrean lankide bat aurkitu dudalako itxaropenarekin.

Arazoa ondoko hau da: zein dira hizkeren arteko desberdintasunak zehazteko jarraitu behar den prozedura eta erabili behar diren teknikak? Hauek asmatzen ez diren bitartean arrazoi zuen K. Mitxelenak zera zioenean<sup>9</sup>:

No vamos a entrar aquí en una discusión acerca de si las diferencias que se observan entre los dialectos vascos modernos son grandes o pequeñas. La discusión es más bien ociosa en tanto no se arbitre una técnica que permita darle una respuesta precisa, cuantitativa.

Alegia, hizkerak bereizteko metodologia baten premia dugu. Urrats desberdinak zehaztuko dituen eta, ondorioz, hizkeren arteko mugak kuantitatiboki emango dituen.

Mitxelenak eskatzen zuen metodologia hamarkada bat beranduago sortu zen eta jadanik bete ditu lehen 25 urteak. Jean Séguy hizkuntzalari okzitaniarrak izendatu zuen izenarekin da ezaguna gaur egun: dialektometria.

Hala ere, disziplina honek arlo kuantitatiboan erantzun egokia eman badu ere, ez du, ordea, hizkuntz unitateen hautaketan sakondu. Orain arteko ikerketa gehienetan lexikoa landu da eta datu gramatikalak hartu izan direnean datu horiek osotasunean landu izan dira.

Gure kasuan, hizkeren arteko konparaketa bi arlotan egitea proposatzen dugu: ezaugarri gramatikalak landuz batetik, eta lexikoa bestetik.

<sup>3</sup> *Ultzamako hizkera*, Nafarroako Gobernua, 1995, Iruñea.

<sup>4</sup> *Aezkoako euskararen azterketa dialektologikoa*, Nafarroako Gobernua, 1997, Iruñea.

<sup>5</sup> *Bizkaieraren egituraketa geolinguistikoa*, EHU, Leioa, 1995.

<sup>6</sup> Besteak beste “Bokalen asimilaziorako erregela fonologikoak Bizkaiko euskarari”, *Enseiukarrean* 9 (1993), 51-61; 1994, “Bizkaieraren azentuaz” in askoren artean *II. Jardunaldiak Soziolinguistikaz*, Bilbo, 43-56

<sup>7</sup> “Burundako hizkera”, in *Euskal Dialektologiako Kongresua*, ASJU-ren gehigarriak, 28. zb., Donostia, Gipuzkoako Foru Aldundia, 1994, 297-364; “Oiarzungo hizkeraren kokagunea”, *FLV* 76 (1997), 397-425.

<sup>8</sup> *Oraingo Argia* 1997-XII-28, 27. or.

<sup>9</sup> *Sobre el pasado de la lengua vasca*, Donostia, 1964, 18. or.; orain *Sobre historia de la lengua vasca I*, Donostia, 1988, 3. or.

Era honetako lanetan ezaugarri gramatikalak lehen aldiz landu zituen dialektologoa J. Séguy izan zen<sup>10</sup>. Hizkuntzalari honek atlas horretako tomo desberdinetan landutako ezaugarri fonologiko, fonetiko, morfologiko eta sintaktikoak erabili zituen lehen ikerketa dialektometrikoa burutzeko. Ezaugarri gramatikalez gain, distantzia lexikalak ere aztergai izan zituen eremu horretako hizkerak bereiztean.

Euskararen egituraketa diatopikoaren analisirako ezaugarri gramatikalak lantzean bat gatz J. Ph. Dalbéra-rekin. Honek hizkuntzaren sistema edo hizkera bakoitzaren sistemako ezaugarriak hartzea proposatzen du, hizkeren arteko konparaketak egin gura badira<sup>11</sup>:

Le point central sur lequel nous insisterons est que les écarts ne peuvent se mesurer de manière valide et significative, à notre sens, qu'entre des systèmes.

---

<sup>10</sup> *Atlas linguistique de la Gascogne*, 6. t. CNRS, Paris, 1973.

<sup>11</sup> "Hiérarchie des traits différentiels et évaluation des distances dans un espace dialectal", in *Actes 1er colloque international A.I.O.*, Southampton, 1984, 541. or.

Beraz, badirudi albo batera utzi behar dela orain arte erabili izan den jokamoldea; hau da, hitzak banaka hartuz, hitzez hitz joanez edota gertakariz gertakari, lexikoaz landako hizkuntz gertakaria denean, hizkeren arteko diferentziak zenbatuz joateko. Hizkera bakoitzean jasotzen diren hizkuntz gertakari indibidualak elkarrekin konparatu edo erkatu ordeztuz hizkera bakoitzaren sistemen artean izatea proposatzen du. Hizkera bakoitzeko sistemari lotuta dauden ezaugarriak aukeratu behar dira, beraz.

Gramatikari dagozkiorik, bada, hizkera desberdinen sistemak ipiniko ditugu konparagunean, euskarari aplikatuko zaionean. Ezaugarri kopuru konkretua izango da proposatuko duguna, gramatikaren edo hizkuntzaren sistemako ezaugarri nagusienak, alegia.

Lexikoari dagokionez, hizkeraren edo hizkuntzaren sisteman sartzen ez bada ere, garrantzi handia dauka hizkerak bereiztean, bereizketa hau gramatikan ez ezik hiztegian ere ematen delako. Honetan, ordea, bestelako prozedura erabiliko da, behe-rago azalduko den moduan.

## 1. Hizkuntz ezaugarriak

Gramatikari buruzko hizkuntz ezaugarriak lantzean lau arlo desberdinetan aztertzea proposatzen dugu: fonologia, izen morfologia, aditz morfologia eta sintaxia.

Lehenik, hortaz, fonologiari buruzko ezaugarriak landuko ditugu. Fonema eta soinu-en inbentarioa, hauen distribuzioa eta arau fonologikoak izango dira aztergai arlo honetan.

Izen morfologian deklinabideko morfemen inbentarioa, arau morfonologikoak eta bestelako morfemen inbentarioa hartuko dira ardatz bezala.

Aditz morfologian aditz laguntzaileko erroen inbentarioa, aditz laguntzailean ematen diren morfema desberdinen inbentarioa eta flexio desberdinen ezagutza izango ditugu aztergai.

Sintaxian, azkenik, aditza eta izen sintagmen arteko komuntadura, perpausaren egitura eta hitzordena, mendeko perpausetako egitura eta erabiltzen diren morfemak.

Hona heldurik, bada, garaia da hizkerak banatu edo bereizteko proposatzen ditugun ezaugarrien zerrenda eta argumentazioak emateko<sup>12</sup>.

---

<sup>12</sup> Alor desberdinetako ezaugarriak aukeratzean ondoko lanak aztertu dira besteak beste: J. ALLIÈRES, *Les basques*, PUF, *Que sais-je?*, Paris, 1977, 71-72; "La dialectologie basque", in *Euskal linguistika eta literatura: bide berriak*, Deustuko Unibertsitatea, 1981, 103-114; R. LAFON, "Quelques traits essentiels de la langue basque", *BRSVAP* VII (1951), 13-24; idem, "La langue basque", *Bulletin du Musée Basque* 60, 58-120; K. MITXELENA, 1964, *Sobre el pasado de la lengua vasca*, Auñamendi, Donostia; idem, "De dialectología vasca", *FLV* 58 (1991), 197-203; N. MOUTARD, "Problèmes spécifiques de phonétique et de phonologie basques", in *Euskal linguistika eta literatura: bide berriak*, 115-128; TXILLARDEGI, "Euskararen ezaugarri nagusiak", in *Hizkuntzalaritza hiztegia-1*, UZEI, Donostia, 1982, 157-167; *Euskal Fonologia*, Ediciones Vascas, Donostia, 1980. Aztertu dira, halaber, L.L. Bonapartek euskalkien mapa eraikitzeke erabili zituen ezaugarriak.

## 1.1. Fonologia alorreko ezaugarri bereizleak

Trubetzkoy-k burutu zuen isofonoei buruzko sailkapenean inbentario eta distribuzioari buruzko fenomenoak aipatu zituen<sup>13</sup>. Gure proposamenean, alor honetan multzo bi hauez gain, euskararen ezagutzen diren arau fonologiko desberdinak ere aztergai izango ditugu, bai hiztegian ematen direnak, baita fonologia sintaktikoan ere.

Euskararen ematen diren fonema eta hotsen inbentarioa zerrendatuko dugu lehenik. Batetik, beraz, euskalkiek ezagutzen dituzten fonema guztiak bilduko dira. Bestetik, fonemez gain, hizkeretan barrena ezagutzen diren hots eta soinu esanguratsuak ere bilduko dira, hala nola [ü] hotsa, [w eta j] goranzko diptongoen [-bokal -kontsonante] elementuak, [ç] (frikari, sabaikari, ahostuna), e.a.

Honenbestez, hauek izango dira euskararen hizkerak elkarren artean konparatzeko fonologia alorrean proposatzen ditugun fonema eta soinuak:

Bokaletan /i e a o u/ fonemak batetik; [ü, j eta w] soinuak, bestetik; bokal sudurkariak (a, e, i, o, u), azkenik. Fonema bokaliko ahokariak ezaugarri bateratzaileak izango dira, hizkera guztietan ezagunak direlako. Faktore kohesionatzaile bihurtzen dira. Gainerako soinuak ezaugarri bereizleak bihurtuko dira zenbait hizkeratan. Hauetarik lehena ekialdeko hizkerak, zuberera eta inguruko hizkerak, gainontzekoetatik bereizteko ezaugarri bihurtuko da. Bigarren biak goranzko diptongoak ezagutzen dituzten hizkerak bereizteko.

Kontsonanteetan ondokoak proposatzen ditugu<sup>14</sup>: p, b, t, d, k, g, f, s, ts, tʃ, dz, dʒ, dʒ, x, h, m, n, l, r, Halaber, ondoko hots bustiak: tt, dd, ph, th. Herskari aspiratuak: ph, th eta kh. Kontsonanteen inbentarioa amaitzeko [R] ebakera ere proposatzen da.

Bokal eta kontsonanteen inbentarioari dagozkiolarik 41 ezaugarri bildu dira orotara.

Euskarak alde batetik eta dialektoek euren artean ere ezaugarri bereziak dituzte fonologia distributiboan. Hona hemen aukeratu diren restriktzioak:

- a) Hasierako [r] soinuaren ezagutza
- b) Hitz hasierako [ç] eta [ç] soinuen ezagutza
- c) Hitz hasierako txistukarietan frikari/afrikatu oposaketaren neutralizazioa
- d) Hitz hasierako txetxekarietan frikari/afrikatu oposaketaren neutralketa: /ç-/ , /tç-/ (xakur,...)

<sup>13</sup> "Phonologie und Sprachgeographie", *Travaux du Cercle Linguistique de Prague* IV, 228-234 (frantses itzulpena "Phonologie et géographie linguistique" in *Principes de Phonologie*, Paris, 1970, 343-350).

<sup>14</sup> "Euskal Herriko Hizkuntz Atlasa (EHHA)" egitasmoan erabiltzen den alfabeto fonetikoaren darabilgu.

e) (b, d, g) > (p, t, k) / \_\_\_ #.

Soinuen inbentario eta distribuzioaz gain badira, bestalde, arau fonologikoak ere. Hizkerak konparatzean hauek ere kontuan hartzea egokia dela uste dugu, desberdintasuna hauetan ere adierazten delako.

Hona hemen, bada, erabiltzea proposatzen diren arau fonologikoak:

a) "a > e / (i, u) C<sub>0</sub> \_\_\_" (asimilazio araua)

b) "e > i / \_\_\_ (C<sub>0</sub>) a" (disimilazio araua): bear [biar]

c) "o > u / \_\_\_ n" araua : honek / hunek; gizon / gizun...

d) "i - ü > ü - ü" (asimilazio araua): ilun > ülhün; ditut > dütüt...

e) "u - u > ü - ü" (asimilazio araua): buru > bü(r)ü; dugu > dügü; hürün; üthürri

f) "au > ai" (asimilazio araua): gau [gai]

g) Bokal galpenak edo sinkopen ezagutza: abre, tenpra...

h) {s, ṣ, ṣ} > (ts, tṣ, ṭ) / {n, l, r} \_\_\_

verso	[beṛtṣo] / [beṛṣo]
hil zen	[hilcen] / [hil sen]
esan zen	[eṣancen] / [esan s en]

i) (ts, tṣ, ṭ) > (s, ṣ, ṣ) / \_\_\_ (b, d, g)

"legatz bat" [lẹʔaṣat] / [lẹʔatṣat] / [lẹʔas pat]

j) (p, t, k) > Ø / \_\_\_ (n, l)

bostna	[boṣna] / [boṣtna]
prest nago	[preṣnạʔo] / [preṣtnạʔo]

k) "ez + {n-, l-}(aditzetan)" soinu elkarketaren burutzapena

l) "ez + z- (aditzetan)" soinu elkarketaren burutzapena

m) "ez + {b-, d-, g-} (aditzetan)" soinu elkarketaren burutzapena

n) Azentua: tonala / intentsitatezkoa

o) Azentu bereizgarria (sing. / pl.)

p) Asimilazio bustidura: "t", "d", "s", "z", "ts", "tz", "n", "l"



q) Bustidura adierazkorra: “t”, “d”, “s”, “z”, “ts”, “tz”, “n”, “l”

r) "{t, k} + {b, d, g}" soinu elkarketaren burutzapena

gizonak datoz	[gisonatatos] / [gisonak ʔatos]
nork du	[norʔtu]
bat bere ez	[bapes]

Honelako lan batean kontuan hartu behar dira, halaber, fonologia diakronikoari dagozkion fenomenoak. Hona hemen aukeratu direnak:

a) "(p, t, k) > (b, d, g) / (n, l) \_\_\_" araua:

TEMPORAM > denbora / denpora  
ALTAREM > aldare / altare

b) "(p-, t-, k-) > (b-, d-, g-) / # \_\_\_" araua:

PACEM > pake / bake  
COHORTEM > korta / gorta

c) (Herskari, f) + alboko > alboko:

LIBRUM > liburu  
FLOREM > lore  
PLACET > laket

c) Erdaratiko "-onem" amaiera:

arrazoi / arrazoin / arrazu

d) Erdaratiko "-ón": kamioi / kamioe / kamione...

Orotara 63 ezaugarri dira aukeratu direnak fonologia arloan (41 fonema eta soinuen inbentarioan, 18 arau fonologia sinkronikoan eta 4 fonologia diakronikoan. Badira, hala ere, ezaugarri gehiago arrazoi bategatik edo besteagatik baztertu direnak: -rz- / -st- soinu oposaketa zenbait hitzetan (bertze/beste; ortzegun/ostegun; ertze/este...), errotazismoaren arazoa (erran/esan) e.a.

## 1.2. Izen morfologia alorreko ezaugarri berizleak

Morfologiari buruzko ezaugarriak sailkatzean izen morfologia eta aditzarena bereizirik aztertzea erabaki dugu.

Hizkuntz ezaugarriak sail desberdinetan kokatzeak abantaila handiak dakartza emaitzen arakatzean. Horrela, hizkuntz desberdintasuna era finago batez atzemateko aukera

izango dugu. Bi hizkeren arteko distantzia ezaugarri fonologikoen arabera, zein izen morfologiakoen, zein beste hizkuntz parametro baten arabera neurtu ahal izango dugulako.

Arrazoi hori erabili dugu morfologian ere bi sail bereizteko: izen morfologia eta aditz morfologia.

Bide beretik, izen morfologiari dagokionez aukeratu diren ezaugarriak multzo desberdinetan sailkatu aurkezten dira: izenaren deklinabideari buruzkoak, izenordainak eta determinatzaileak.

### 1.2.1. Izenaren deklinabidea

Lehenik deklinabide kasuak aztertuko dira. Kasu desberdinetan erabiltzen diren atzizkien ezagutzaren arabera sailkatuko dira hizkerak. Hona hemen proposatzen diren deklinabide kasuak:

- a) Deklinabidean mugagabe/mugatu oposaketaren ezagutza
- b) Bizidun/bizigabeen arteko oposaketa deklinabidean
- c) Datibo pluraleko morfema (-ai, -ei, -er)
- d) Prolatiboaren ezagutza
- e) Pluralean absolutu eta ergatiboaren arteko oposaketa morfologikoaren ezagutza
- f) Soziatiboko morfema (-gaz / -ekin, -ekilan)
- g) Destinatiboko morfema (-entzat/-endako)
- h) Adlatiboko morfema (-ra / -rat / -ri buruz)
- i) Adlatibo zuzenezkoaren morfema (Ø / -rantz / -runtz)
- j) Adlatibo bukatuzkoaren ezagutza "-raino";
- k) Adlatibo bukatuzkoaren morfema: "-raino/-ra arte" oposaketaren ezagutza
- l) Mugagabeetan datiboan loturazko hizkia kontsonantez amaitzen diren deklinagaietan
- m) Bizidunetan inesibo mugatuetako morfema (-gan / baitan)
- n) Ablatiboko morfema (-tik /-tikan, -tik / -rik)

Euskal deklinabidean oinarri eta mugatzailearen artean ematen diren arau morfonologikoak ere ezinutzizkoak dira hizkerak konparatzeko lan batean. Gaia aztertzeko R. P. G. de Rijk<sup>15</sup>, J. I. Hualde<sup>16</sup> eta I. Gaminderen<sup>17</sup> lanak aintzat hartu dira eta euretan proposatzen diren arauak aukeratu. Hona bada arauok:

- o). "a > e / \_\_\_ a #" edo De Rijk-ek "Raa" deitzen duen araua:

/alaba - a/      [alabea<sup>⊛</sup>]

- p) "a > e / (i, u) C<sub>0</sub> \_\_\_" araua. "Rui" eta "Low Vowel Assimilation" bezala izendatua izan da arau hau; lehena De Rijk-ek eta bigarrena Hualdek:

/mendi - a/      [mendie<sup>⊛</sup>]

<sup>15</sup> "Vowel interaction in Bizcayan Basque", *FLV* 5 (1970), 149-167.

<sup>16</sup> *Basque Phonology*, Routledge, Londres-New York, 1991.

<sup>17</sup> "Bokalen asimilaziorako erregela fonologikoak Bizkaiko euskaran", *Enseiukarrea* 9 (1993), 51-61.

/zeru - a/      [serue❖

Arau honek hizkera batzuetan aldaera bat ezagutzen du:  $a > e / (i, u) C_0 \_ C$ . Hots, azken posizioan agertzen denean ez da araua betetzen, baina ondoren kontsonante bat dagoenean, ostera, bai:

[mendia❖, baina [mendiek❖

Izaera hau ere kontuan izango da hizkerak bereiztean.

q) “ $e > i / \_ a$ ” araua. De Rijk-en terminologia erabiliz “Rea” araua dugu:

/etxe - a/      [et<sup>h</sup>ia❖

r) “ $a > V_1 / V_1 \_$ ” araua:

/seme - a/      [s<sup>h</sup>emee❖

/zozo - a/      [sosoo❖

/mundu - a/      [munduu❖

s) “ $a > \emptyset / \_ \text{❖} V$ ” J.I. Hualdek “Stem-Final Low Vowel Deletion” deitzen duen araua:

/alaba - a/      [ala<sup>h</sup>a❖

/alaba - ekin/      [ala<sup>h</sup>ekin❖

t) “ $o > u / \_ a \#$ ” araua. “Roa” bezala izendatutako (De Rijk) araua dugu. Hualdek “Mid Vowel Raising” deitzen du:

/asto - a/      [as<sup>h</sup>tua❖

u) “ $\emptyset > C / i \_ (a, e, o)$ ” araua. De Rijk-ek “Riy” eta Hualdek “glide insertion” deitzen diote arau honi. Tartekatzen den kontsonante hori desberdina izan daiteke hizkera batetik bestera. Hiru dira maizen erabiltzen direnak ([<sup>h</sup>❖, [C❖ eta [↔❖:

/mendi - a/      [mendi<sup>h</sup>a❖ - [mendiC<sup>h</sup>a❖ - [mendi↔a❖

/mendi - en/      [mendi<sup>h</sup>en❖ - [mendiC<sup>h</sup>en❖ - [mendi↔en❖

w) “ $\emptyset > [ʁ❖ / u \_ (a, e, o)$ ” araua; De Rijk-ek “Ruw” deitzen duena::

/buru - a/      [buru<sup>h</sup>a❖

Beraz, orotara 22 ezaugarri aztertzea proposatzen dugu izen deklinabidean. Hauez gain, arau morfonologikoen hurrenkera ere kontuan izan behar da hizkerak sailkatzean.

### 1.2.2. Izenordainak:

- a) Izenordain indartuen sistema (*neu... / nerau... / nihau...*)
- b) Izenordain galdezkatzaileak (*nor/zein*)
- c) Izenordain galdezkatzaileak (*nola/zelan*)
- d) Izenordain zehaztugabeak: -bait /... (*norbait, zerbait./ baten bat, zer edo zer*)
- e) Izenordain zehaztugabeak (*nehor /inor / deus*)
- f) Izenordain zehaztugabeak (*nor - nortzuk / zein - zeintzuk*)
- g) Forma bihurkariak: *neure, heure...*
- h) *Bere / haren* anaforak

### 1.2.3. Determinatzaileak:

- a) Artikulu hurbilaren ezagutza
- b) Erakusleak (*hura-haiek / a-urak*)
- c) Erakusle indartuak (*berau / berori / bera*)
- d) Zenbatzaile izenordainaren ezagutza (*biga, batto*)
- e) Zenbatzaile zehaztuak: *orduak (13ak)*
- f) Zenbatzaile zehaztugabeak (*zenbait/batzuk*)
- g) Zenbatzaile zehaztugabeak (*asko / anitz*)
- h) Zenbatzaile zehaztugabeak (*honenbeste... /hainbeste*)
- i) Zenbatzaile orokorrak (*denak izenordain /guzti izenlagun*)
- j) -nahi / edo- (*zeinahi, zernahi... / edozein, edozer...*)
- k) Konparaketak: berdintasuneko konparaketa (*bezain / beste*)

Guztira 41 ezaugarri bildu dira izen morfologia alorrari dagokionez. Fonologian baino hagitx gutxiago. Hemen ere kanpoan gelditu dira hainbat eta hainbat gertakari morfologiko, besteak beste deribaziorako erabiltzen diren atzizkien analisia, deklinabidean berean hainbat xehetasun, zenbatzaileetan, e.a.

## 1.3. Aditz morfologia alorreko ezaugarri bereizleak

Aurreko alorretan bezala proposatzen diren ezaugarriak multzo desberdinetan kokaturik aurkezten ditugu: aspektua, denbora eta pertsona batetik; aditz erro desberdinak, bigarren; pluraleko morfemak, hirugarren; eta alokutiboak, azkenik.

### 1.3.1. Aditz erroak

- a) Aspektu marka gabeko aditz formetan laguntzailean erabiltzen diren erro desberdinak (ezan / egin / -iro(n)): *ekarri leIke, ekar leZAke, ekar lIRO...*
- b) Historikoki indikatibo deitua izan den aditz eran aditz laguntzailean erabiltzen diren erro desberdinak (edun / eutsi): *esan dIo / esan dEUTSo...*
- c) Aditz laguntzaileen erroa NN [+orain\* denean: dot - det - dut
- d) 'Izan' aditzaren erroa [+orain\* denean: gara / gera / gare

### 1.3.2. Pluraleko morfemak

- a) NORK sintagmaren 3. pertsonako pluralgilea (-TE/-E): *du-duTE / dau-dabE, dio-dioTE / deutso-deutsoE.*
- b) NORK-NOR delarik 3. pertsona NOR-en pluralgilea (-IT/-Z): *du-dITu/dau-dauZ, dITuZte/dabeZ.*
- c) NOR erako aditz trinkoetako 3. pertsonako pluralgilea (-Z / -TZA): *daroaZ/daramaTZA.*
- d) 3. pertsonaren pluralgilearen izaera NOR-NORI denean (-Z/-ZKI-): *jakoZ / zaiZKIo.*
- e) Hiru izen sintagmadun aditz laguntzaileetako pluralgilearen izaera (-Z(KI)-/-Z /-IT-).
- f) NORK-NOR (bi izen sintagmatako) aditz trinkoetan pluraleko morfemaren tokia (-Z/-Z): *daukazuZ / dauZkazu.*
- g) 2. pertsonaren pluralgilea NORK delarik erabiltzen den morfema (-E/-TE): *dozu-dozuE / duzu-duzuE / dezu-dezuTE, zenuen-zenuTEn / zenuan-zenuEn.*

### 1.3.3. Alokutiboa

- a) Alokutiboaren ezagutza: hika.
- b) Alokutiboaren ezagutza: zuka.
- c) Alokutiboaren ezagutza: xuka.
- d) Alokutiboaren ezagutza: berorika.
- e) Alokutiboaren muga sintaktikoa: [-adierazpen] perpausetan erabiltzen den.
- f) Alokutiboaren muga morfologikoa: [+alegi azko] perpausetan erabiltzen den.

- g) Alokutiboetan NOR-NORK erako *edun* adizkietako erroa (-i- / -u-)
- h) Alokutibo trinkoetan hasierako kontsonantea (z- / d- / y-): *diagok / zagok / yagok*.
- i) Alokutibo trinkoetan [+orain] denean hartzen den bokala (-a- / -e): *zagok / zegok*.
- j) Alokutibo trinkoetan erro eta hitanoaren markaren arteko loturazko hizkia (Ø / -a- / -e-):  
*yabik / zebillek / zabilak*.

#### 1.3.4. Aspektua, denbora, pertsona eta beste

- a) Aditz aspektuaren markarik gabeko adizkien ezagutza.
- b) Ezaugarri edo marka modalaren (-ke) ezagutza: *egin duKE/egingo du, joan dateKE/joango da, egin zuKEen/egingo zuen, izan zateKEen/izango zen*.
- c) [-orain,+iragan] denboraren markaren (-n) ezagutza: *nentorra/nentorreN*.
- d) NOR sintagma bakarreko aditz [+iragan]-etan 3. personaren ezaugarria (Z- / Ø): *Zegoen/egoan*.
- e) [+orain,-iragan] delarik NOR sintagmaren pertsona ezaugarriak (N-, H-, D-, G-, Z-, Z-...te, D-).
- f) Forma trinkorik gabeko aditzetan puntukaritasuna adierazteko sistema: ari izan / -tzen egon / -ki (*irakurtzen ari naiz /irakurtzen nago / ...*).
- g) [-orain,-iragan] delarik denbora, *baldin ba- / ba-* protesiaren ezagutza: *hola baldin bada/hola bada*.
- h) NOR-NORI aditzetan *izan* laguntzailearen lehen elementu kontsonantikoaren izaera (Y-/Z-): *Yat / Zait*.
- i) [+iragan]-eko denboraren marka eta erroaren arteko bokalaren izaera (-A-/E-): *zAn/zEn*.
- j) [+gero]-ko aspektuaren ezaugarriaren distribuzio diatopikoa (-KO/-EN): *esanGO dut / esanEN dut*.
- k). "-tz-" elementua *gu-zu-zuek* pertsonekin *nor* izen sintagmadun [+iragan ✱ aditzetan.
- l) Aditzizena edo nominalizazioak egiteko sistema (-tuten, -ketan, -t(z)en, -tzean).
- m) Partizipioak egiteko atzizkia: -au, -atu / -idu, -itu.
- n) Partizipioa eraikitzeke atzizki desberdinen ezagutza ( -ta / -(r)ik / -a).

Guztira 35 ezaugarri biltzen dira aditz morfologian, lau multzo desberdinetan bananduta: aditz erroak aztertzeke 5 ezaugarri jarri dira; pluralgileak 7 ezaugarritan bildu dira, bai 3.pertsonako pluralgileak, bai 2. pertsonakoak, eta bai *nor*k sintagmari dagozkionak, bai *nor* sintagmari; alokutibozko formak eta morfemak 10 ezaugarritan biltzen dira; aditzean parte hartzen duten gainontzeke morfemak biltzeko 14 ezaugarri aukeratu dira.

#### 1.4. Sintaxia alorreko ezaugarriak

Dialektologiaren ikuspuntutik gutxien landutako gramatikaren alorra dugu hau. Egia esan, gainerako alorretan baino arazo gehiago aurkitzen du dialektologoak datuak biltzean. Arazo honek sintaxia lan geolinguistikoetan gutxi lantzea ekarri du.

Hizkerak bereiztean baina, ezinbestekoa dugu ezaugarri sintaktikoak ere gogoan hartzea.

Fonologian eta ondorengo alorretako jarraibideari ekinez multzo desberdinetan landuko da alor hau ere. Lehenengoan perpaus beregainetako ezaugarrietan sakonduko da; bigarrenetan mendeko perpausen egiturak arakatuko dira.

##### 1.4.1. Perpaus beregainak

- a) Aditzaren komuntadura *nor* sintagmarekin. Bi kasutan aztertzea aurrikusten da: *nor* izen sintagmak determinatzaile mugagabea daramanean eta zenbatzailea denean.
- b) Aditzaren komuntadura *nor*i sintagmarekin.
- c) Aditzaren izenlagunaren kasua (-a(ren) + -t(z)era).
- d) Aditz nominalizazioaren kasua (-tzen joan / -tzera joan).
- e) Ezezko perpausaren egitura.
- f) Errestrikzioa (baizik / baino).
- g) Erakuslearen lekua sintagman (hau etxea / etxe hau).
- h) Bai-ez erako galderak (al / -a / Ø).
- i) Behar + aditz iragangaitza.
- j) Nahi + aditz iragangaitza.
- k) Ahal/ezin + aditz iragangaitza.
- l) Ahal partikularen erabilera (-tzen ahal / Ø ahal).
- m) Galdegaia: izena.
- n) Galdegaia: aditz perifrastikoa.
- o) Galdegaia: aditz trinkoa.
- p) "Elkar + ikusi" edo erreprozitate euskaraz.
- q) Gerundioaren erabilera (ikusiz, ...).
- r) Antipasiboa.

##### 1.4.2. Mendeko perpausak

Multzo honetan mendeko perpaus motak baino ez dira zerrendatzen:

- a) Konpletiboak perpaus nagusia baiezkoa denean (-la / -n).
- b) Konpletiboak perpaus nagusia ezezkoa denean (-la / -nik).
- c) Konpletiboak *uste izan jakin...* aditzekin (-la / -na).
- d) Zehar galderazko perpausak (-n).
- e) Perpaus kausalak (-lako).
- f) Perpaus kausalak (... eta / -bait).
- g) Perpaus kontzesiboak (arren / nahiz eta / ba ... ere).
- h) Denborazko perpausak (-tzen... -enean / -ko ... -enean / -en orduan).
- i) Denborazko perpausak (-en bitartean / -en artean / -enean).
- j) Baldintzazko perpausak (ba- / baldin ba- / -n ber).
- k) Harridurazko perpausak (ba ... -tan!).
- l Helburuzkoak (-tzeko).
- j) Erlatibozko perpausak: -n / Ø (partizipioa bakarrik) / zein ... n

31 ezaugarri aurkezten ditugu syntaxian. Agian laburregi gerta liteke aurkezten den ezaugarri sintaktikoen zerrenda hau.

Alor guztietako ezaugarriak zenbatuz 170 ezaugarri biltzen dira. Gogoratzeko 63 ezaugarri fonologian, 41 izen morfologian, 35 aditz morfologian eta azken 31ak syntaxian.

## 2. Ezaugarrien garrantzi desberdintasunaz

Proposatzen diren ezaugarriak alor desberdinetakoak izanik, denak pisu bera balute bezala aurkeztu dira hemen.

Alabaina, hizkerak bereizteko ezaugarrien eta hauek marrazten duten isoglosen hierarkiarik egin behar ote da? Ezaugarri batzuk besteak baino garrantzi handiago ote dute? Luzaz mintzatu dira honetan etxeko zein kanpoko dialektologoak. Gurekoak aipatuz, honela mintzatu da K. Mitxelena<sup>18</sup>:

Es claro, en efecto, ya a primera vista, que las concordancias o las discrepancias entre los dialectos no pueden ser simplemente contadas, puesto que unas pueden ser más importantes y más profundas que otras, sino que habrán de ser ponderadas de alguna manera.

---

<sup>18</sup> *Sobre historia de la lengua vasca*, 15-16. or.



Iritzi hau ez da gurean bakarrik hedatu, beste hizkuntzalari askorengan ere entzun izan da. Horrela azaldu dira, isoglosez ari direlarik, J. K. Chambers eta P. Trudgill<sup>19</sup> edo J. Veny<sup>20</sup>, eskuragarri diren batzuk aipatzearen.

Gisa berean mintzatzen da X. Videgain<sup>21</sup> zera dioenean:

Pizu bera eman behar ote zaio erregela fonetiko bati, diskurtsoaren katean hanitz aldiz errepikatzen denari alde batetik, eta bestetik, maiztasun tipiko lexema bati, azentuazio-fenomeno bati, aditz-forma bati? Zeren arabera neurt? Iduri luke elgar-ulerketari ez dioela epantxurik egiten askotan errepikatu erregela fonologikoak, eta aldiz behin agertzen den lexema desberdina ilunik gelditzen dela.

Mitxelena eta ondokoak hizkuntz gertakari indibidualez ari dira. Gure kasuan, ordea, ez dira gertakari indibidualak aztertzen eta konparatzen, sistemak beharrezko dituen ezaugarriak baino. Eta ezaugarri bakoitza lantzeko gertakari indibidual bat edo gehiago erabil daiteke, mugarik gabe.

Gaia era honetan planteatuz ez dugu uste hizkuntz ezaugarri batek hizkuntz sisteman beste batek baino garrantzi handiagorik duenik, sistema ibiltzeko beharrezko den artean. Horrexegatik proposatzen dugu ezaugarri guztiek pisu bera izatea. Eta horrela, gainditzen da Mitxelenaren aburua.

Ezaugarriak, gainera, ez dira burutzen gertakari indibidualetan baino, hauek beharrezko dituzte euskarriztat, izatez abstraktuak dira eta.

Videgainek planteatzen duen arazoa, elkar ulerketarena alegia, bestelakoa da. Hizkuntz desberdinketa eta elkar ulerketa bi kontzeptu desberdin dira. Lehena, ikertzailearen ikuspuntutik egiten den azterketaren emaitza; bigarrena, hiztunaren ikuspuntutik oharpena. Eta, ondorioz, ez dagokio huts-hutsean hizkuntzari, soziolinguistika edota psikolinguistikari baino<sup>22</sup>.

Ikertzailearen ikuspuntutik egindako azterketa dugu hizkeren desberdinketa edo banaketaren gaia. Hizkera desberdinen sistemetako osagaiak dira konparatzen direnak eta ez hizkuntz unitate konkretuak. Horregatik, ez da aintzat hartzen hizkuntz unitate baten maiztasuna. Maiztasun hori gorabehera hizkera baten sistemak berdina funtzionatzen duelako. Eta maiztasun hori, bestalde, aldagarria delako hizkuntz maila eta hizkuntz ekoizpen desberdinetan zehar.

Kantitateak ez du kalitatea izkutatu behar. Esan gura duguna ondoko hau da: izan dadin ezaugarri fonetiko bat, gura dena. Ezaugarri hori hizkera batzuetan era batera burutuko da eta besteetan beste era batera. Egunean zeharreko elkarrizketetan ezaugarri hori agertzen

<sup>19</sup> *La dialectologia*, Visor libros, Madril, 1994, 148-152.

<sup>20</sup> *Introducció a la dialectologia catalana*, Enciclopèdia Catalana, Barcelona, 1985, 121. or.

<sup>21</sup> "Mitxelenaz eta dialektologiaz", in *K. Mitxelena. Gizona eta Hizkuntza*, EGAN-en ale berezia, 141-153. or.; aipamena 148.

<sup>22</sup> X. Ravier, "L'incidence maximale du fait dialectal", in *Les dialectes romans de France*, CNRS, Paris, 1972, 43-59; aipamena 57. or.; ikus zabalago G. Aurrekoetxea, "Nafarroako euskara: azterketa dialektometrikoa", *Uztaro* 5, 1992, 59-109, aipamena 63-64. orr.

deneko kantitate edo ehunekoak ez du aldaraziko hizkera bi horien artean ezaugarri bat desberdina dutela. Hizkuntz ezaugarri hori modu desberdinez burutzen dute bi hizkerok. Hizkuntz sistemak gabiltza konparatzen, ez ezaugarri horiek zenbat aldiz burutzen edo erabiltzen diren egunean zehar edo hitun batzuen ahoetan.

Elkar ulerketa edo ulergarritasuna, bestalde, ez da inoiz ere lineala izaten: A ----- > B zentzuan ulergarritasun maila handiagoa izaten ahal da B ----- > A zentzuan baino. Hautemate edo oharpen maila, bestalde, hizkuntzaz kanpoko faktoreek eragiten dute, faktore psiko- edota soziolinguistikoek, hain zuzen ere. Hizkeren arteko distantzia, aldiz, faktore linguistiko hutsetan oinarrituz sortzen diren ezberdintasunen gainean eraiki behar da.

### 3. Ezaugarrien kopurua

Honezkero, batek baino gehiagok egingo zuen ondoko itauna: baina zenbat ezaugarri behar ote dira ezarri hizkerak konparatzean edo hizkeren arteko mugak zehaztean? Galdera zaila eta nik dakidala erantzunik gabea, orain artean behintzat.

Dena den, ez dut uste kopuru zehatz bat izan behar denik. Hizkeren arteko desberdintasunak neurtzean hizkera horietako gramatika ezaugarriak multzo zehatz batean bil daitezke, bildu beharko lirateke. Ezaugarrien multzo horretatik egin beharko litzateke aukera. Denak? Beharbada, bai.

Hizkeren arteko distantziak edo desberdintasunak aztertzean berdintasunak ere aztertu behar dira. Distantziak gradualak dira, hizkera batetik bestera distantzia handiagoa ala txikiagoa izan daiteke, 100 ezaugarritatik 60tan berdinak izan daitezke bi hizkera eta 40tan desberdinak. Ezaugarri batean berdinak izan daitezke bi hizkera eta beste batean desberdinak, baina aldi berean berdina duten ezaugarri bat dela eta desberdindu daitezke beste hizkera batekin.

Ezaugarri batzuk, orobat, hizkera guztietan ezagunak izan daitezke. Eta, hala ere, hizkeren arteko konparaketan beharrezkoak dira; euren lekua dute. Zeren hizkeren arteko desberdintasuna mailakatua da eta hizkerok hizkuntza batean parte hartzen dutela adierazteko balioko dute.

Henri Guiter-ek, Mitxelenaren aipu batekin hasten duen arren gure artean batere oihartzunik izan ez duen lan batean,<sup>23</sup> hizkeren arteko distantziak eta mugak aztertzean lau maila bereziten ditu: %20tik gorako desberdintasuna agertzen denean hizkera desberdinen aurrean geundeke; %30etik gorako desberdintasuna agertzen dutenak azpidialekto desberdinak lirateke; %50tik gora dialekto desberdinak; eta %80tik gora hizkuntza desberdinak.

Bere metodoa lexikoan oinarritzen dela jakinik ere, hipotesi gisa baliagarri izan dakiguke hizkeren sistemak edo egiturak konparatzen ditugunean ere. Horrela hizkeren arteko

---

<sup>23</sup> “Atlas et frontières linguistiques”, in *Les dialectes romans de France à la lumière des atlas régionaux*, (col. de Strasbourg, 1971), STRAKA, G./P. GARDETTE (arg.), Paris, 1973, 61-109.

desberdintasunak neurtzeko konparaketa aparatuan agertzen diren ezaugarrien desberdintasun kopurua ehunekoetan eman daiteke.

Gorago aukeratu diren ezaugarriak berrartuz, inoiz ere ez da gertatuko bi hizkeren arteko desberdintasuna %100 izatea, euskararen eremu osoa hartzen duten ezaugarriak badirelako. Eta ulergarria da hizkuntza bateko hizkerak aztertzen dihardugulako. Eta hizkuntza bateko izanik ezaugarri kopuru jakin bat berdina izan behar delako. Ez dira, beraz, tasun bereizgarriak bakarrik erabiliko, hizkerak beharrezko dituzten ezaugarriak baino. Zenbat eta gehiago izan, orduan eta azterketa finagoa, zehatzagoa, lortuko da. Horregatik, ezaugarri kopuru zabala erabiltzearen aldeko gara, azterketa eta sailkatze zehatza lortu bidean.

Guiter-ek lan askotan eta hizkuntz eremu anitzetan erabili du bere metodoa. Gorago aipatu lanean, diodan bidenabar, beste eremu batzuetakoekin batera, euskarari buruzko ikerketa ere plazaratzen duela. Hain zuzen ere, J. Allières-k "Petit atlas linguistique basque-français <Sacaze>" lanean argitaratu zituen datuak erabiliz. Metodo honen bidez lortutako emaitzak taula desberdinetan eta mapa batean isladaturik agertzen dira. Emaitzak, gainera, Bonaparteren sailkapenarekin ere alderatzen ditu.

#### 4. Gramatika arlo desberdinetako ezaugarrien arteko oreka?

Hizkuntz edo gramatikaren alor desberdinetan ezaugarri kopuru desberdina proposatu dugu, alor guztietan kopuru bera egin ordez.

Baina, gramatika alor desberdinek garrantzi bera ote dute hizkerak bereiztean? Desberdintasun lexikoen ala fonetikoek, morfologikoen edo sintaktikoen ote dute garrantzi handiagoa? Honetaz ere asko hitz egin da dialektologoen artean. Oso eskuragarri zaigun J.K. Chambers / T. Trudgill-en proposamenetik hasiz<sup>24</sup> beste asko aipa daitezke hemen.

Oraingoan ere alor honetan orain arte proposatu izan denetik desbideratu egingo naiz. Delako hizkuntza baten sistema fonologikoa, adibidez, izan dezakeen ezaugarri kopuruak ez du baldintzatzen aditz sistemako ezaugarri kopurua. Hizkuntza batek izan lezake sistema fonologiko sinplea, baina aditz sistema konplexua. Sistema sinplea den neurrian ezaugarri kopuru laburra izango du, konplexuaren aldamenean.

Dena den, gramatikaren alor bakoitzean ematen den desberdintasuna kopuru errealean emateaz gain ehunekoetan ere eman daiteke. Honetara, alor bakoitzak pisu berdina izan lezake ehunekoetan neurtzen denean, honela lortutako kopuruak gehituz.

#### 5. Ezaugarriak eta datuak

Hizkuntz ezaugarriez aritu gara orain artean hizkeren arteko konparaketa egitura asmatu nahirik. Ezaugarriok, ostera, hizkuntz unitate abstraktuak dira eta ez dira hizkuntz gertakariak ez dira hizkuntz komunikazioan huts-hutsik agertzen.

---

<sup>24</sup> *Idem* 152. or.; ikus baita Baldinger-en iritzia in X. Ravier, aip. lana, 56. or.

Beraz, hizkuntz ezaugarriok hizkera konkretuan ezagutzen diren jakiteko berba egitean lekukoek ebakitzen dituzten “hitz”etara jo beharko da. Datu errealek, alegia. Datuon bidez jakingo da delako hizkeran ezaugarri bat ezagutzen den ala ez. Datuetan bilatu beharko dira, bada, hizkuntz ezaugarriok.

Aurrekoa onartuz gero, ondoko itauna egin beharko litzateke: zenbat datu behar dira hizkera batean ezaugarri bat ezagutzen dela egiaztatzeko? Ezaugarri bakoitzak zenbat datu behar ditu hornitzeko? Edo bestela esanda, noiz esan daiteke ezaugarri bat ezagutzen den ala ez hizkera batean? Nahiko ote da behin agertzea, datu bat bakarrik erabiltzea ezagutzen edo erabiltzen dela egiaztatzeko?

Adibide batekin argiago geldituko dela uste dut: eman dezagun /h/ fonemaren ezagutza dihardugula aztertzen. Eman dezagun ere Ahetzen, adibidez, fonema hori lortzeko aukeratu diren datuak bost hitz desberdin direla (*harri*, *ahate*, *senhar*, *erhi* eta *hau*) eta herri horretan batean baino ez dela ahoskatzen soinu hori. Nola interpretatu beharko litzateke “errealitate” hori? Kasu honetan Ahetze eta bost hitzotan “h” ebakitzen den beste hizkera bat maila berean ipini beharko ote dira? Bi herriotan “h” erabiltzen dela, bestelako ñabardurarik gabe, esan ote daiteke?

Baliteke, gainera, hizkeraren batean bost hitzotatik batean baino ez ahoskatzea “h”a, edo bitan. Zer egin kasu hauetan? Agian, arazoa beste era batean planteatu beharko litzateke: bostetatik batean ere ez bada soinu hori ahoskatzen, hizkera horretan soinu hori ez dela ezagutzen ondorioztatuko da; beste kasu guztietan ezagutzen dela esan beharko litzateke, nahiz betetze maila desberdinak izan.

Ikusten denez, arazoa ez da ezaugarri bat hizkera batean ezagutzen den ala ez zehaztea, ezagutza horren maila zehaztea baino. Ezaugarri baten ezagutza modu kuantitatibo batez tratatzera garamatza prozedura honek. Horrela, hizkera batean delako ezaugarria %20an, %40an... betetzen dela ondorioztatuko da.

Argi dago, aukeratu den datu batean bakarrik egiaztatzeak ezaugarria hizkera horretan ezaguna dela adierazteko balio duela eta, horrez gain, %20an dela ezaguna. Honek adierazten du ezaugarriak aztertzeko aukeratzen diren datuen garrantzia. Hauek arauaren isla zintzoa izan behar direlako.

Bestalde, datuen homogeneitatearen arazoa dugu. Hizkera andana bat elkarren artean konparatzeko proiektua bideragarri izan dadin konparazio-taula horretan erabiliko diren datuak homogeneoak izan behar dira. Eta hori egingaitza balitz, ahalik eta homogeneoenak. Honek datu-base handiak erabiltzera bultzatzen du ikertzailea.

## 6. Lexikoa

Orain artean gramatikari buruzko ezaugarriez aritu gara. Hizkerak ez dira, ordea, gramatika ezaugarriez bakarrik bereizten. Lexikoa ere funtsezkoa izaten da zeregin honetan aritzen diren ikertzaileentzat.

Ezinezko gertatuko da lexikoan gramatikaren atal desberdinetan erabili den jokamoldeaz baliatzea. Alta, bada adibiderik hizkeren arteko muga eta desberdinketaz aritu izan direnen ikertzaileen lanen artean, lexikoa zelan erabil daitekeen zehatzen duenik. Egia esan, joera bat baino gehiago izan da. Dialektologo batzuk hizkuntz atlas batean jaso diren item lexikal guztiak erabili izan dituzte hizkeren mugak zehaztean. Beste batzuk, berriz, aurrerago joan dira eta askitatz jotzen dute halako kontzeptu kopuru bat baino ez hartzea.

Horretan ihardun du, adibidez, H. Guiter-ek zera dioenean<sup>25</sup>:

Nous devons donc considérer comme peu sûres les données fournies par moins de 100 cartes (...). Il semble que le carré du pourcentage de sauts diminue proportionnellement au nombre de cartes étudiées: à partir de 107 cartes, les résultats seraient les mêmes qu'avec 200.

Guiter-en irizpide hau ondo egokitzen zaio hizkeren mugak zehazteko berak erabiltzen duen “Metodo Global” deituari. Ikusteko dago beste metodo batzuekin erabiltzean arazorik sortzen ez duen.

Bi jarraibide eskuarteetan ditugunak. Hizkerak bereizteko aukeratzen den metodoaren arabera erabil daitezkeenak.

Horiek horrela, eta lexikoaren formalizazioari ekinez, gramatika erabili den prozeduratik urrundu beharrean gaude. Arlo honetan ezinezko zaigu ezaugarriez hitz egitea. Bestelako egokitzapen batzuk beharko dituzte datuek.

Aukeratzen diren datuak lematizatu beharko dira nahitanahiez, hizkera desberdinetako datu lexikalak elkarren artean era konparagarrian ipin ditzagun. Desberdinketa maila lexikalean kokatzen da arlo honetan. Item lexikal baten burutzapenean gertatzen diren arazo fonetiko-fonologikoak ezabatu behar dira nola edo hala lematizazioa deitu prozedura erabiliz. Adibide batekin argiago geldituko dela uste dut: demagun ‘araña / araignée’ kontzepturako ondoko erantzunak jaso direla: *miarma*, *armiarma*, *armierme*, *irmiarma*, *imiarma*, *aramu*, *aremu*, *araña*, *arañe* eta *lipu*. Erantzun hauen ondoan jaso daitezkeen bestelako erantzunak alboan utziz, nola konparatu behar dira hitz hauek? Zenbat berba desberdinen aurrean gaude?<sup>26</sup> Ahoskatze desberdinetako erantzunak nola aztertu behar diren da gakoa. Aldaera fonetikoak kontuan hartu behar diren ala ez lexikoan oinarritzen den hizkeren arteko bereizketan.

Lehen bostak hartuz, badirudi aski forma hurbilekoak direla eta arau fonologiko batzuek direla bide desberdintzen direla. Arauak asmatzea ere ez da zailegia kasu honetan. Denen artean bidezkoa da forma osotzat *armiarma* hartzea eta besteak honetatik sortutako aldaerak bezala kontsideratzea. Forma hau hartu beharko genuke hitz multzo horren lematzat. Hau da, aldaera guztiak bilduko lituzkeen forma abstraktutzat. *Aramu* eta *aremu* berbak beste multzo batean kokatuko genituzke, *aramu* hartuz lema moduan. *Araña* eta *arañe* hitzen artean lehena ezarriko genuke lematzat. Azkenik, *lipu* hitza aldaerarik gabekoa genuke eta forma bera jarriko genuke lema gisa.

<sup>25</sup> Op. cit., 80. or.

<sup>26</sup> Jakina, alfabeto normatiboz jasotako erantzun “desberdin” hauen kopurua handitu egingo litzatekeela alfabeto fonetiko erabiliz transkribatuko badira.

Honezkero, lau lematan bildu ditugu jasotako 10 hitzak. *Armiarma* lemarean pean agertzen diren hitz guziak aldaeratzat hartzen dira. Hitz bakartzat jotzen da, beraz; aldaera desberdinak ezagutzen dituen hitz bakartzat. Eta hitz bakartzat jotzen badira aldaera horiek guztiak, aldaera horiek ezagutzen dituzten hizkeren artean ez da desberdintasunik izango. Hau da, lexikoaren arabera hizkeren desberdinketa lemetan oinarritzea proposatzen dugu eta ez hitzaren burutzapen konkretuetan.

## 7. Ondorioak

Laburbilduz, hizkeren arteko desberdintasunak eta mugak zehaztean bi arlo desberdini ekitea proposatzen dugu: batetik gramatikari, biltzen dituen arlo desberdinak landuz: izan dadin fonologika, izen eta aditzaren morfologia, zein sintaxia. Bestetik, lexikoari, hizkeren bereizketan garrantzi handiko hizkuntz osagaia delako.

Gramatikan hizkuntz ezaugarriak arloka zehaztu eta finkatzea proposatzen da. Alor bakoitzean behar adina ezaugarri aukeratzea begiztatzen dugu, mugarik ezarri gabe. Guztira 170 ezaugarri gramatikal zenbatu dira. Ezaugarri guztiak hizkuntzaren sisteman beharrezkoak diren neurrian garrantzi bera dutela uste dugu, ulergarritasuna hizkuntz arazo baino soziolinguistiko edo psikolinguistikotzat hartzen delarik. Ezaugarri bakoitzaren horniketa ere ukitu da, baina beste baterako utzi da beharrezko sakontasunez aztertzeko.

Lexikoan, ostera, jaso diren datuen lematizazioa egitea da urratu beharrezko bidea, aldaerak konparatu ordez lemak erabiliz.